

Erroman gara, leiendaren arabera Romulok fundatutako hiri eternoan.

Berton aurkitu zuten aspaldi Caius Mocconius Verus pretorearen hilobiko inskripzioa.

Idazkunak haren *cursus honorum* edo karrera politikoa azaltzen du.

Hari esker dakigu Mocconiusek, K. o. I. edo II. mendean VII. Legioan zebilelarik, baskoien eta barduliarren hogeita lau hiriren errolda osatu zuela.

Balio izugarritzko lekukotza, zalantzarik gabe. Zaharrenetariko bat izateaz gain, gure lurraldeko herrien arrastoan jartzen gaitu. Hilobian hirien izenik ageri ez bada ere, Ptolomeo geografo greziarrak garai berean aipatutako 24 berberak izan litezke.

Ez da hori, jakina, erromatarrek utzitako testigantza bakarra. Estrabon, Plinio, Tito Livio edo Julio Zesarrek ere hitz egin ziguten herriei buruz.

Baina, zoritxarrez, orduko historialariek ez zuten herri haietako lagunak mintzo ziren hizkuntzei buruzko aipurik jaso.

Ezer gutxi dakigu Antzinaroko euskaraz, eta beti ere erromatarren aldareetan eta hilarrietan agertutako hitz bakanen bitartez.

Ezer gutxi, ordea, asko da.

EUSKARA JENDEA

Erromako Inperioan

K. a. VIII. mendean sorturik, Erroma adierazle garbiena dugu ulertzeko zer den inperio bat.

Latinezko hitzak berak argitzen digu: *Imperium Romanum*, Erromako dominioa.

Errepublikako aldiaren ondoren, Inperioa K. a. 27. urtean ezarri zuten. Mende bat geroago, erromatarrek bereganatuak zituzten Ozeano Atlantikotik Kaspiar Itsasorainoko lurralde guztiak; Itsaso Gorritik Pertsiar Golkoraino; eta Sahara basamortutik Rhin eta Danubio ibaietaraino.

Hedatzeak sakoneko aldaketak ekarri zizkien lurralde haietako herriei.

Ohiturak, antolaketa politikoa eta administratiboa, gizartea, ekonomia, erlijioa... Alor guztiak bestelakotu ziren nagusiaren kultura-globalizazioaren erakusgarri.

Gure lurraldera, K. a. II. mendean heldu omen ziren erromatarrek.

Bi aldetatik azaldu ziren: Ebro ibaian gora eta Akitaniako lur zabaletan barrena.

Herrien eta erromatarren arteko harremanak aski baketsuak izan zirela dirudi. Tarteka, baina, herriak Erromako barne-borroketan murgildu ziren.

Esaterako, Ponpeioren legioek indarrez hartu zuten Sertorioren agindupean zegoen Calagurris hiri baskoia. Mitoaren arabera, kalagurritarrek nahiago izan zuten antropofagia egin Ponpeioren mendean bizi baino.

Hala ere, Elena Torregarai Historian doktorearen hitzetan, etorri berriek traba handirik gabe ezarri zituzten administrazioa, merkataritza eta sistema militarra eremu guztian.

Elena Torregarai

Erromatarrek, lehenik eta behin, lurraldea menderatu nahi zuten, modu ezberdinetan. Bortitza bazen, modu bortitzean. Eta hala ez bazen, hura gertatu eta gero integrazio prozesu bat sortzen zuten. Orduan, neurri batean, bere sisteman modu ezberdinetan... maila ezberdinetan sartzea eskaintzen zuten. Hori Euskal Herriko lurraldeetan ere eskaini zuten, eta bertan zeuden herriek onartu egin zuten integrazio prozesu hura.

Erromatarrek hainbat herrirekin egin zuten topo.

Karistiarrak Bizkaian eta Araban bizi ziren; Autrigoiak Bizkaiko mendebaldean; barduliarren lurraldea gaur egungo Gipuzkoara eta Arabako zati batera zabaldua zen; baskoiak, berriz, Nafarroan nagusiki, bai eta Errioxako eta Aragoiko toki batzuetan ere.

Azkenik, mendien ipar aldean, akitaniarrak, Garona ibairaino gutxienez.

Torregarai

Pentsatzekoa da garapen maila ezberdinetako herriak zirela. Baskoiak izan ziren hobekien ezagutu zituztenak, haien berri eman ziguten batez ere. Besteei buruz, berriz, gauza gehiago dakigu arkeologiari esker, eta ez bakarrik testigantza idatziei esker. Baina, oro har, herri ezberdinak topatu zituzten, ez batasun bat guztien artean.

.....

Herri bat menderatu eta gero, erromatarrek lurraldea antolatzen zuten.

Hiriak sortzen zituzten beren erredua zabaltzeko.

Mertxe Urteaga Oiasso Erromatar museoko zuzendariaren ustez, integrazioari zabaltzen zioten atea haien bidez.

Mertxe Urteaga

Erromako Inperioak hiriak baliatu zituen bere antolakuntza zabaltzeko. Hiri sarea, beraz. Eta sare hartan errepideek eman zituzten hirien arteko loturak.

Hiri-sarea osatzen zuten, besteak beste, Andelos, Veleia, Oiasso, Kaskante, Arakil edo Iturissak.

Eta guztien gainera, nabarmenki: Pompaelo. Iruñea.

Torregarai

Erromatarrentzat Pompaelo Inperioaren mendebaldean zegoen. Halako hiri bat fundatzean bere izenarekin, Pompeio Inperioko mugak finkatu eta bere burua konkistatzaile aldarrikatzen ari zen. Horregatik, erromatarrentzat hiri sinboliko bat zen Pompaelo.

Erromatarrek jakitun ziren Pompaeloren balio estrategikoaz. Ez dago alferrik Pirinioen magalean.

Haietan, Orreaga eta Luzaide artean, Ibañetako gaina dago. Iduri luke Astorgatik Bordelerako galtzadaren punturik gorena, Summus Pyrenaeus, inguru hartantxe kokatzen zela.

Erromako presentziaren erakusgarri baskoien lurraldeko bihotzean.

.....

Ekonomia garatzeko eta lurraldea kontrolatzeko ezinbestekoa, erromatarrek ordura arteko galtzada-sare handiena eraiki zuten.

Funtzionarioak, armada, zergak... dena harilkatzen zuten bideen inguruan.

Amarauna Europako punta batetik bestera zabaltzen zen.

Gurean, galtzada nagusi bik disezionatzen zuten lurraldea. Batetik, Asturica Burdigalam, Astorgatik Bordelerako bidea. Bestetik, Tarraco eta Oiasso gune estrategikoak uztartzen zituena, Tarragona eta Irun.

Via Maris deituriko itsas-bideak, bestalde, Flaviobriga eta Lapurdum lotzen zituen, hau da, Castro eta Baiona, Bermeo, Lekeitio, Zarautz, Oiasso eta Getaria biak zeharkatuz.

Mertxe

Gure kostaldean portuak egon dira, bai eta ontziak gordetzeko eta zaintzeko tokiak ere. Ezberdinak dira. Portu batek moilak, dikeak eta biltegiak zituen. Bestalde, egitura horiek guztiak ez zituzten tokiak ere bazeuden. Baina haietara ere ailegatzen ziren eta ateratzen ziren ontziak, eta arrantzan egiten zuten. Hori guztia kontuan izaten

badugu, orduan ematen du Santander, Bordele eta Oiassok triangelu bat osatzen zutela, eta nabigazio mota bat bideratzen zutela.

Galtzadek bere osoan hartu zituzten herrietako lur emankorrak.

Baina itsas portuei eta Ebro ibaiko zein Akitaniako lautadei ez ezik, mendialdeari ere begiratu zioten erromatarrek.

Hamaika meategi eta harrobi ustiatu zituzten. Besteak beste, burdina lortu zuten Bizkaiko Meatzaldetik, urrea Itsasu herritik eta marmol gorria Ereñotik.

Dena den, guztietan inportanteena Aiako meatzaritza-gunea izan zen.

Eta, haren barnean, Arditurriko meategia.

Mertxe

Oiartzun herriraino ailegatzen zen, baina baita Irun, Bera eta Lesakara ere. Baina Arditurri zen tokirik inportanteena.

Mertxe

Hor daukagu garrantzi handiko meatze-gune bat. Aztarnei dagokienez, mota askotako ereduak erakusten ditu, mehatzaritza nola antolatzen zen ulertzeko adibide paregabeak. Eta erromatarren garaiko historia ulertzeko erreferentzia nagusia da.

.....

Dokumentu idatzietan ere topa dezakegu erromatarren hedatzearen arrasto ugari.

Antzinaroko kronistak, aldiz, ez ziren gehiegi arduratu kolonizatutako lurraldeetan mintzatzen ziren hizkuntzak jasotzeaz.

Gaurko adituengana jo beharrean gaude herrietako mintzaireren berri izateko.

Joaquin Gorrotxategi Hizkuntzalaritza Indoeuroparreko katedradunaren esanetan, egun ezer gutxi dakigu.

Joaquin Gorrotxategi

Populuen izenez eta beste gauza batzuei buruz badakigu. Hizkuntzari dagozkion kontuei buruz, aldiz, oso gutxi esan ziguten. Alde batetik, bertako jendeak ez zigun ia ezer utzi eta, bestetik, erromatarrak etorri zirenean, oso gauza gutxi kontatu ziguten hizkuntzei buruz.

Gainera, lurralde bat hizkuntza bat bikotea ez zen beti zertan eman.

Torregarai

Dakigunez, baskoien lurraldean bazegoen euskara, bazegoen zeltiera eta bazegoen iberiera. Beraz, ez dakigu zehazki zergatik diren baskoiak. Ez dakigu horretan

hizkuntzak zerikusia daukan. Berez, hor ezjakina adierazi behar dugu. Zergatik da baskoi izena? Kulturala da? Linguistikoa? Beste mota batekoa? Gaur egun ez dakigu.

Herri baten lurraldean, ba, hizkuntza bat baino gehiago egon zitekeen.

Horixe da euskararen testuingurua.

Eta horretantxe bilatu behar ditugu lekukotasunak.

Gorrotxategi

Zenbat eta ekialderago, lekukoak garbiagoak dira. Ugariagoak dira eta garbiagoak dira. Zenbat eta mendebalderago, berriz, urriagoak eta ilunagoak. Orduan, non dago muga? Badago muga zehatzik? Nik neuk ez dut uste muga zehatzik zegoenik.

Muga zehaztu ezin bada ere, aski zabala omen zen euskararen lurraldea.

Gorrotxategi

Nire ustez, esan daiteke euskararen eremua Garona ibaitik, ekialdean, Pirinioetara zihoala, itsasoraino, eta hortik iparraldera eta hegoaldera. Gaskuñako lautadan ere badago dokumentatuta, ekialdean batez ere. Mendebaldean, Landetan, ia ez dago ezer ere, baina horrek ez du esan nahi ez zenik egiten, bakarrik dokumentaziorik ez dugula, ez euskararena, ez galierarena, ez beste ezerena. Hegoaldean, berriz, dokumentuak egon badaude. Baskoien lurraldean badaude dokumentuak. Lerga, Zaragoza partean, Huescan ere bai... Mendebaldera bagoaz, Lizarraldean ere bai., badaude jainko izenak.

Pirinioetatik urrundu ahala, lausoago bihurtzen zaigu dena. Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban oso gutxi daukagu.

Harrigarria eman balezake ere, lekukotasun garbiagoak agertu dira Soria aldean, Cidacos ibaiaren iturburuan.

Harrietan zizelkaturik, ustez euskaratik bakarrik esplika daitezkeen hainbat pertsona-izen azaldu dira. 'Sesenco', 'onse' edo 'onso' bezalako izenek euskarara garamatzate hizkuntzalarien aburuz.

Pentsa liteke lotura dagoela Calagurris hiri baskoiarekin.

Edozein kasutan, erantzun gabeko galderak daude hor.

Gorrotxategi

Noiztik egiten zen han euskara? Hango euskara zaharra zen? Edo hara eramana zen beste toki batzuetatik? Hau da, Nafarroako erdigunetik edo. Baina eramana baldin bazen, noiz eramana ote?

.....

Soriako izenek epigrafiaren bidean jartzen gaituzte, hau da, aldareetako eta hilarrietako idazkunen bidean.

Epigrafiak gure hizkuntzaren eremua mugarrizten laguntzen digu.

Euskarazko idazkunik ez dagoenez, latinezko erreparatu beharrean gaude lekukotasunik aurkituko badugu.

Ugari dira haietan euskarara hurbiltzen gaituzten pertsona-izenak eta jainko izenak.

Gorrotxategi

Izenak, izen propioak, inportanteak dira. Pertsonen izenak dira, emakumeen eta gizonezkoen izenak, esate baterako, 'andere', 'nescato' edo halakoak emakume izenen artean; edo 'gison', 'senbeco', 'seineco', 'otso' eta halakoak gizonen artean.

Atharratzen aurkitutako aldare honek kultura nahasketaren berri ematen digu.

Caius Valerius Valerianus izeneko hiritarrak Herauscorritsehe jainko sakratuari eskaini zion aldarea. Nahiz eta idazkia latinez egon, jainkoaren izenak euskal itxura nabarmena dauka.

Era berean euskal itxurakoak dira 'baigorriko', 'bihoxus', 'arbelex', 'gerexo' eta 'leherenn'.

Edota Lergako hilarri batean azalduko 'umme sahar'.

Gorrotxategi

'Umme sahar' nahiko garbia da, baina 'umme sahar' honen ondoan badaude beste bi hain garbiak ez direnak. Eta horiek esplikatzen behar dira. Garbi da ez direla ez erromatarrak, ez latin jatorrikoak, ez zeltierak eta, seguruaski, ez iberierarrak. Izen horiek badituzte ezaugarri batzuk, hala nola aspirazioa. Hauxe ez zen iberieran ezagutzen eta euskararen, berriz, oso normala omen zen.

Besterik pentsa litekeen arren, izen gehienak Pirineo erdialdeko haranetan aurkitu dira, gaur egungo Euskal Herritik urrun.

Okzitaniako Saint Bertrand de Comminges herrian eraiki zuen Ponpeiok 'Lugdunum Convenarum' kanpamendu militarra K. a. 72. urtean.

Saint Bertranden dago erromatarren garaiko euskarazko izen kopururik handiena.

Gorrotxategi

Harriak toki guztietan agertzen dira, ez hiriburuan bakarrik, ez Saint Bertrand de Commingesen bakarrik. Hura eremu hartako hiriburua zen, 'Lugdunum Convenarum' deitutakoa. Bitxia da, 'Lugdunum' hitz zeltiera da... Baina pertsona-izen gehienak eta jainko-izen gehienak akitanierazkoak dira, euskal kutsukoak dira.

.....

Inperioak mendean hartutako herri guztiek tokia egin zioten latinari, ezinbestean ordaindu beharreko zerga balitz bezala.

Hain handia zenbaitetan, mintzaira batzuk betiko desagertu ziren.

Hizkuntzei dagokienez ere, erromatarren eta herrien arteko harremanak ez ziren berdinen artekoak.

Torregarai

Jada K. o. I. mendean, Valerio Maximok esan zuen Inperioko hizkuntzak latina izan behar zuela. Beraientzat, neurri batean, naturala zen. Beraiek nagusiak zirenez, berez erabili behar zen latina. Bere menpe zeuden guztiek erabili behar zuten latina beraiekin hitz egiteko, bestela ez zuten kasurik egiten.

Harreman hauek, zantzu guztien arabera, desoreka bat sortu zioten euskarari.

Bizilagunek, boterea zuen elitearen hizkuntza erabili behar zuten funtzio sozial gorenak beteko bazituzten.

Baina latinaren berebiziko eragina ez zen hizkuntza-harremanetan bakarrik gertatu. Hizkuntzaren muineraino ere zabaldu zen.

Gorrotxategi

Euskarak latinaren eragina jaso du, ustez hizkuntzaren eremu guztietan. Nabariena lexikoan da, hau da, hitzetan. Gramatikan eta ahoskeran ere handia izan zen seguru aski, baina horietan askoz zailagoa da jakitea zehazki zenbaterainokoa izan zen eta non gertatu zen.

Baba, leka, piku, muxika, olio, zekale, tipula, golde, ortu, dolare... Latinetik hitz asko ekarriak izan ziren gure hizkuntzaren doinuetara egokitu ondoren.

Eta ez soilik fruitu, teknika edo tresna berrien izenak: hitz arruntak ere izan ziren ordezkatuak, bizitzeko forma berrien adierazgarri.

.....

Hizkuntzen arteko harremanek pentsatzera garamatzate hirietan batez ere mintzatzen zela latinez.

Har dezagun, adibidez, Oiasso, gaur egun Irun zabaltzen den lurretan.

Oiasso bidegurutze estrategikoa zen, Tarracotik Pompaelon barrena zetorren bideburua eta, Bidasoa gainditzeko zeukan zurezko zubiaren bidez, Akitaniarako atea.

Haren inguruan zilarra, kobrea eta burdina ekoizten zen.

Azkenik, itsasoari irekia, portu garrantzitsua ere bazen Bordele eta Santander artean.

Mertxe

Hor biltzen dira erromatarren garaiko antolakuntzan eskatzen ziren faktore nagusiak. Eta hortik dator Oiassoko garrantzia, bere barruan biltzen baititu aipatu ditugun ezaugarri nagusiak: gune urbanoa izatea, errepide baten ondoan egotea eta, horietaz gain, portua izatea.

Oiasson eraikuntzak, kaiak, biltegiak, hilerria eta termak aurkitu dituzte.

Pista ugari ematen dizkigu ulertzeko nola bizi ziren hirietan.

Mertxe

Hiri batean bizitzeak, besteak beste, erakundeak izatea esan nahi zuen. Erakundeak errepideak mantentzeko, zergak jasotzeko, erroldaduta egoteko. Hirietan ematen zen edo, hobeto esanda, errepikatzen zen batez ere Erromako erredua.

Erromatar erako bizimoldera etorri nahian, baskoi, autrigoi, barduliar, karistiar eta akitaniar asko bilakatu ziren hiritar.

Baina nola lortzen zuten Erromako hiritartasuna?

Konkistatutako herrirentzat armadan sartzea zen irtenbide bakarrenetariko bat.

Torregarai

Hiritartasuna batez ere pribilegio bat zen, ez zen eskubide bat. Hiritartasunarekin batera eskubide batzuk etortzen ziren, hala nola bozkatzeko eskubidea, ezkontzeko eskubidea, merkataritzan aritzeko eskubidea... Beraz, bizi baldintza hobeak. Bizi baldintza haiek eskuratzeko erromatarrek gauza batzuk exijitzen zituzten. Adibidez, armadan 25 urtez parte hartu, diru trukez administrazioan sartu eta udal-kargu bat eskuratu edo hiriaren alde zer edo zer egin.

Gainerako herriek bezala, euskaldunek ere jardun zuten armadan lurra zaintzen edo bereganatzen erromatarrentzat.

Barduliar, akitaniar eta baskoiek, hasiera batean behintzat, osatutako kohorteak Erromako legioen uberan ibili ziren European barrena.

Horixe 'Cohors I Fida Vardullorum' kohortearen kasua: Germanian borrokatu ondoren, Britainian izan zen hainbat mendetan.

Hori dela-eta, Ingalaterrako ekialdean urtero, behinolako egunak oroitzen dituzte Nodge Nolanek eta *Colchester Roman Society* elkarteko kideek.

Nodge Nolan

Colchester-eko Erromatar Elkarteak orain dela 25 urte sortu zen. Soldadu erromatarrekiko interesa azaleratu nahi genuen, bai eta orduko jendearen bizimoduarekikoa ere. Hasieran 4 lagun besterik ez ginen. Gaur egun, ordea, 30.

Nolan

Beste elkarte gehienek ez bezala, guk ez genuen legionario erromatarren bizimodua islatu nahi, baizik eta bereziki laguntzaile-kohorte batena, tropa auxiliari batena alegia.

Nolan

Oso eraginkorra eta izugarri indartsua izan arren, Erromako armadak gabeziak eta beharrak ere bazituen. Hori dela-eta, Inperio garaian, hiritarra ez zen jendea hartu zuten askotariko lan militarrek egiteko. Armadan 25 urte eman ondoren, jende hura hiritar bihurtzen zen eta, ondorioz, zenbait eskubide bereganatu. Arrazoi nahikoa zen askorentzat.

Nolan

Cohors I Fida Vardulorum kohorteak Euskal Herrian sortu zen. Barduliarrak baskoien auzoak ziren. Dirudienek, Britainiara heldu baino askoz lehenago osatu zen kohorteak. Dakigunaren arabera, Germanian barrena jardun ostean, K. o. 70. urte inguruan bidali zuten Britainiara.

Nolan

Erromatarrek ez ziren tontoak. Klima goxoak nahiago zituzten. Bazekiten Euskal Herria berdea eta ederra zela, baina baita, sarri, bustia eta hotza ere. Orduan, Hadrianoaren Harresira bidali zuten kohorteak. Ingalaterrako iparraldeko toki hartan, giro hotz, haizetsu eta bustian, barduliarrak etxean bezala sentitu omen ziren.

Nolan

Tamalez, ez dakigu gauza handirik barduliarren ohiturek eta eguneroko bizimoduak. Edonola ere, badakigu, ondo jakin ere, Erromako armadan bazegoela hizkuntza komun bat, behintzat, aginduak emateko eta betearazteko. Barduliarrak harremanetan izan ziren erromatarrekin beharbada Britainiara iritsi baino 100 urte lehenago. Beraz, pentsa liteke gai zirela ofizialen eskaerei eta aginduei latinez erantzuteko. Izan ere, latina zen Inperioko hizkuntza.

Nolan

Bestalde, pentsatzekoa da euren artean jatorrizko hizkuntza erabiltzen zutela. Erosoago sentitu behar zuten hura erabiliz, noski. Ofizialek tutik ere ulertu gabe ibil zitezkeen hizketan.

Nolan

Batek baino gehiagok galdetuko dio bere buruari zein den Colchesterren eta barduliarren arteko lotura. Izan, bada hari bat: Saturninus izeneko soldadua Gloucestershire-n bildu zen *Cohors I Fida Vardulorum*-era. Colchesterren hartu zuen erretreta, aldiz. Lizentzia-diplomaren zati bat Colchesterreko Gazteluan dago gordeta, museoan. Hala eta guztiz ere, gaur egun ezin dugu baieztatu kohorte osoa izan zenik Colchesterren. Baina, tira, geu ari gara bertan. Hortaz, badago barduliarrik Colchesterren!

Armada utzi eta gero, legionarioak *'fundus'* deituriko etxaldeetan kokatu ohi ziren.

Etxeok, sarri, nagusiaren izenaz batera, *'-anus'* atzizkia eramaten zuten, norena zen adierazteko.

Adibidez, Belaskoren *fundusa* *'Belascoanus'* zen latinez, Belaskorena alegia.

Askotan, *'-anus'* atzizkia *'-ain'*, *'-ano'* edo *'-in'* bihurtzen zen euskararen galbahetik pasatu ondoren.

Gendulain, esaterako, Centulianus izenetik omen dator; Andoain, Andoanusetik; eta Laudio, Claudianusetik.

Izenak latinez eratuta daude, baina euskal ahotik pasatu dira.

Gorrotxategi

Badago beste bat, beste atzizki bat lehenagokoa, bertokoa, inondik ere ekarritakoa ez dena. Akitanian oso ugaria da, bai eta baskoien lurraldean ere, Huesca aldean, Leridan... hots, oso normala Pirinioetatik bi aldeetara. Gaskoieraz *'-os'* forma erakusten du, aragoiez *'-ues'*, eta euskaraz, Nafarroan, *'-otze'*, esate baterako, Nabaskotze, Navascués edo Navascos.

Erroma III. mendean hasi zen ahultzen.

Inperioa oso poliki arrakalatzten.

V. mendean, Europa osoan zabaldu ziren herri mugimendu handiek bukaera ekarri zioten.

Ekialdetik, alanoak, bandaloak eta sueboak euskararen eskualdean barna igaro ziren Iberiar Penintsularako bidean.

Ordurako, gure lurraldea erromatarturik zegoen: euskaldunak isolaturik eta konkistatu gabeak bizi izan zireneko ideia guztiz faltsua da.

Mittoa da. Hein handi batean, erromatarrek eurek asmatua.

Inperioaren menpeko eremuan identitate bakarra zegoen: erromatarra.

Erromatarrek, hala ere, errealitate poetiko bat ere osatu zuten, eta hartan identitateak ezberdinak ziren.

Torregarai

Errealitate poetikoan argazki finko bat eman zen herri batzuei buruz, baskoiak tartean zeudelarik. Normalean, erromatarrek konkistaren garaian ezartzen zuten irudi finko hori eta, modu horretan, bere literaturan mendeetan zehar ikusten zen irudi hori ez zen mugitzen.

Horregatik, erromatarren iturrietara jotzean, batzuetan ematen du bazeudela bi baskoi mota: botere erromatarra onartu zutenak eta isolatuak bizi izan zirenak. Eta poetika horretan ez zeuden bakarrik baskoiak, herri guztiak baizik.

Errealitatea, berriz, oso besterik zen: bizimodua, hein handi batean, erromatar erakoa zen.

Erromatartze kulturalak, hala ere, ez zuen aldean hizkuntza erromatartzerik ekarri. Euskararen herriak ez ziren osoki latinizatu.

Gorrotxategi

Inperioaren garaian, euskara egiten zutenen eta elebakarren kopurua jaitsiz joango zen nire ustez. Hala ere, momentu batean tendentzia hura moztu egin zen, bukatu. Erori egin zen Inperioa. Haren administrazioa, makineria, latinaren kontu guztia erori zen. Orduan, euskarak utzi zion bestearen presioa egunero sentitzeari lepo atzean. Eta, nolabait, aisialdia hartuko zuen eta hori, nik uste, nabaria egin zen VI. eta VII. mendeetan batez ere.

Erromatarren boterea agortzerako, baskoiak nabarmendu egin ziren.

Baina jada ez ziren K. a. I. mendeko baskoiak.

Nahiko bestelakoturik zuten izaera. Aski erromatarturik.

Hala ere, izena eta hizkuntza gordetzen jakin zuten.

Erdi Aroan sartu orduko, beste hizkuntza baten oldarra gainditua zuen euskarak.

Europar izan den inperiorik handienak sortutako zibilizazioaren ondorioz hizkuntza ugari desagertu ziren, tartean euskararen auzo-erदारak: iberiera, Penintsulako hizkuntza zeltak eta galiera.

Euskarak, aldiz, iraun egin zuen.

“Hori da! Panteoia Erromako monumentu zahar bat da. 2.000 urte ditu”.

“Bada, oso ondo mantentzen da”.

“Bai, oso ondo mantentzen da erabili delako. Euskara bezala”.

Nola lortu zuen irautea?

Zergatik ez zen latina guztiz nagusitu?

Zerk bultzatu zituen euskaradunak beren mintzaira galtzen ez uztera?

Galderak galdera, erromatarrak iragan ziren eta euskara jendeak eutsi egin zion bere hizkuntzari.